

» TELEGRAMA


Paraleloan musika elektroniko saioak Bilbora itzuliko dira urriaren 7an **DJ Stin-gray**ren emanaldiarekin. Bilboko Kafe Antzokian da zita gaurditik aurrera **STOP Santurzine** film laburren jaialdiaren edizio berria hemen da eta aurten garrantzi berezia eman nahi izan diote Euskal Herriko produkzioari: urriaren 6tik aurrera etxean egindako hainbat film eskainiko dituzte **STOP Baby Shakes** New Yorkeko taldea Donostiako Le Bukowskin ariko da urriaren 9an 20:00etatik aurrera: hiru emakume hauek agertokian egiteko gai direna entzun nahi izanez gero, ez galdu aukera **STOP**

» DISKOA

Post rock doinu sendoa



Joxi Ubeda



Zimur sendoak

TORII

I. O. 2016

Baionako Torii taldeak kaleratu du I.O. (Iparrorratza) zigiluaren lehen diskoa. Jurgi Ekizaren ekimenez sortu da zigilua, Ipar Euskal Herriko taldeen lanak argitaratzeko.

Rock eta post rock aireak suma daitezke Torii taldearen kantuetan. Gitarren riffak eta haien arteko jolasak edo elkarrizketak, erritmo aldaketak, melodiak eta kantuek transmititzen duten energia azpimarragarriak dira.

Musikari bakoitza trebetasunez aritzen da bere tresnarekin, abeslaria ere bai, batzuetan sumindurik eta beste batzuetan leun, eta ederki zehaztu dute bakoitzak zein toki betetzen duen kan-

tuan. Karlos Osinagarekin grabatu dituzte kantuak Tolosako Bonberenea estudioetan, Karlos Osinagak berak egin ditu nahasketak, eta masterizazioa Jonan Ordorikak egin du Azkarateko Mami estudioan. Ekoizpen lan ona egin dute. Doinu indartsua gauzatu dute, sendoa, garbia, naturala.

Kantuen bidez, beren gogoeten, kezken eta sentimenduen gainean gordin mintzo dira: "Egun ikusi dut, hil zen gizon bat, bere inguruan mundua irriz eta dantzan, egun ikusi dut hilzorian zen mundua, bere gainean gizonak irriz eta dantzan" (*Makur eta itsu*), "Eroriko nintzela pentsatzen nuenean, etsipenaren menpe bakarrik nintzenean, hatsa hartu ezinik, agertu zinenen" (*Itzalak argitu*), "Jan, edan, lasai, dena kontrolpean dago, ez, ez zaitugu utziko batzen ta oldartzen" (*Kontrolpean*), "Zure oreka atxeman, denbora hartu, eta itzuli, egin duzunaren gainean, eginen duzunaren aintzinean, eta sartu biziaren dantzan" (*Oreka*), "Itxurakeriaren erregea, garbitasuna bere jauregia, bazterketa bere boterea, bere epaia ezeztatzina" (*Itxurak*), "Eguzkia dut orain ikusten, bidean gelditu naiz hitz egiten ortzimugari, oihuka biziaren mugeri" (*Ortzadarra*).

Zimur sendoak osatu baino lehenago Torii taldeak beste bi disko kaleratu ditu: *Bi* (2014), hiru kanturekin, eta *Lehenbizi-ko Atea* (2012), sei kanturekin. ■

Torii talde baionesa, buru-belarri eszenatokian.

